

ONDARROA. Udaleko Euskera zerbitzuak prestatu dau ekimena

Euskara eskolak antolatu ditue merkatarientzat

Establezimenduetan euskerea erabilten laguntzea da asmoa, eta garbiro praktikoa izango da

Lore Bengoetxea |

Ondarroako Udaleko Euskera zerbitzuak euskera eskolak antolatu ditu merkatarientzat. Nabarmendu dabenez, eskola praktikoak izango dira, eta oinarritzko zalantzak argitzera joko dabe. Oraingoz, talde bi osotu ditue, euskaldun hutsekin, baina jenteak eskatuko balaie, erdaldunentzako taldea be egingo leukie.

Apirilaren 8tik bagilaren 21era arte iraungo dau merkatarien euskerea hobetzera zuzendutako ikastaro honek. Praktikea izango da nagusi, gogoratu dabenez. Hori dala eta, eguneroko jardunean dendariak beharrerako daukiezan arazoei erantzuteko helburua dauka ekimenak.

Zer ikasiko dabe

Zenbakiak eta jenteaurrean oharak eta kartelak idazteko balio izango deuse. «Dendariak zalantzea eukiten dabe, esate baterako, *ts* ala *tz* idaztean. Oinarritzko ortografia arauak erakutsiko deusieez», azaldu dabe Udaleko Euskera zerbitzuan.

Euskaldunak diran dendariak eta euskerea ikasi nahi dabenak euki ditue gogoan ikastaroa antolatueran. Horren haritik, talde



LORE BENGOTXEA
Dendetan oharak ipinieran sortzen diran zalantzak argituko ditue.

bi sortu dira, 14:30etik 16:00ak artekoa bata, eta 20:00etatik 21:30ak artekoa bestea. Euskaldunak dagoz talde horreetan, baina erdaldunek izena emoten badabe, beste bat sortu ahal da.

Eskolak astelehen, eguazten eta barikuetan izango dira. Astean sei ordu jasoko ditue, be-

raz. Euskara ikastaroa Alfabetatze-Euskalduntze Koordinakundeko irakasleek emongo dabe, aurreko baten egin izan eben modura.

Argitu dabenez, ez dira agiri edo titulua lortzeko ikastaroak, eta diru laguntzak egongo dira parte hartzen dabenentzat.

LABURAEAN

ONDARROA

OTAMek Palestinako gatazkea aztertuko dau

Ondarroako Talde Anti Militaristearen eskutik, *Palestinako gatazkea* gaia landuko dabe, zapatuan, Guzur Etxean. Ekimena zemendian nazinoarteko orden barriaren ganean antolatu ziran jardunaldien ondorio da. 11:00etatik 13:00etara, Palestinaren eta sionismoaren sorkuntzearen eta hedapenaren ganeko informazioa emongo dabe transparentzi eta diapositiben bitartez. Bazkaldu ondoren, *Las tres gemas* pelikulea botako dabe, Gazako errefuxatu zelai bateko ume baten historia. Jarraian, mahai-ingurua izango da Nazinoarteko Analisisietarako erakundeko kide Gabirel Ezkurdiak eta Koldo Gorostiagak bideratuta.

Udea pasetako familiak behar ditue euskeraz ikasten diharduenek

Udalaren Euskera zerbitzutik jakitera emon danez, urtero modura, aurren be euskeraz ikasi nahian dagozanak familia euskaldunen bila dabilz, udan egonaldia egingeko. Familia bakoitzak 492 euro jasoko ditu, ikasle eta hileko. Familiak lau lagunekoak izan behar dira, eta ikasleari aparteko logela emon behar jako. Izena emoteko Udaletzeko euskera zerbitzura jo behar da, apirilaren 8rako.

'Arranondo' aldizkaria kalean dago

Arranondo aldizkariaren 142. alea etxerik etxe banatu dabe. Bertan, beste gauza askoren artean, inauterietan ataratako argazkiak ikusiko ditu irakurleak.

MARKINA-XEMEIN

Ipurbeltz taldeak mendi urteerea eta bazkaria antolatu ditu hilaren 24rako

L.B. |

Markina-Xemeingo mendigoizaleek urteerea eukiko dabe hilaren 24an, Aralarra. Ganera, bazkaria be atondu dabe egun horretarako. Plazak mugatuak diranez, izena al bait arinen emoteko eskatu dabe.

«Agustin Arrate Australiara doalako, agurra antolatu dogu», gogoratu dabe Ipurbeltzek Markinan ipini dituen kartelen bidez. Hilaren 24an izango da agurra, eta osagai bi izango ditu: mendi urteerea eta bazkaria. Goizeko zazpi eta erdietan ipini dabe batzeko ordua. Aralarra hamargarren kilometrotik aurrera mendirik mendi ibiliko dira. Horretarako, ibilbide bi prestatu ditue, bakoitzak bere ahalmenaren arabera aukeratu daian. Bata zein bestea aukeratu, guardiaren etxean amaituko dabe danek. Bertan, bazkaria eukiko dabe 14:30ean. Ekimean parte hartu nahi dabenek Rosi jatetxean emon behar dabe izena.

AGENDEA

LEA-ARTIBAI

Mendi urteerea eta bazkaria: Lea-Artibai, Mutriku eta Debako mendi taldeek urteerea antolatu dabe hilaren 24rako. Ibilbidea hauxe da: Urruña-Xoldokogaina-Bidasoa ibaia-Ingelesaren gaztelua. Sagardotegian bazkalduko dabe. Izena betiko lekuetan emon behar da.

ONDARROA

Erakusketea: Institutuko Astronomia taldeak irudiak ipini ditu Udalaren Erakusketa gelan, bihar arte, astronomiaren ganeko jardunaldien barruan.

Rock kontzertu lehiaketea: Gaur, UHF (Ondarroa) eta Jauko Barik (Pasaia) izango dira Apallun, 23:00etan.

AMOROTO. Azkenean be, sei lagun aurkeztu dira taberna eta ostatua erabilteko Udalak egindako eskaintzara

Laudioar batek hartuko dau hemendik aurrera Herriko Taberna erabilteko ardurea

L.B. |

Amorotoko Udalak jakinarazo dauenez, azkenean be erabil-tzailea eukiko dabe Herriko Taberneak eta ganeko etxeak. Azken hori, ganera, ostatu lez erabili ahal izango da. Sei lagun proposamenak jaso ditue, eta arabar baten esku itxi dabe ardurea. Hilaren 23 edo 24rako zabalduko dau.

Laudioko Isabel Diaz Lopezi

emon deusie taberna eta goiko etxea erabilteko eskubidea. Maribi Ugarteburu alkatearen esanetan, «egun batzuk joango jakoz tramitazioak-eta egiten, baina asteburu honetarako ez hurrengorako zabalik eukiko dau».

Udalburua pozik dago, bate-tik, lortu daben erantzunagaitik eta, bestetik, taberna martxan ipintea lortu dabelako. «Nahi bakarra da denpora askorako

izatea. Horregaitik, tabernearen ardurea hartu dauenari gogo eta zortea euki daiala opa deusagu, urte askotarako», dino Ugarteburuk.

Amorotoko Herriko Taberna herriko taberna bakarra da. Alkatearen ustez, herri txiki-tan taberneak funtzino berezia daukie. «Zerbitzu publikoa be badira, jentea bertan batzen dalako. Herri modura preminapremiazkoa da», dino.



LORE BENGOTXEA
Maribi Ugarteburu Amorotoko alkatea Herriko Taberna erakusten.